

Kale Zaharra (I)

> Jerardo Elortza eta Xabier Zelaia

Gure herriguneko kale-en nondik norakoak eta noiztik norainokoak kontatzeari hasiera emateko, egokiena **Kale Zaharra** lehen-dabizi aukeratzea dela iruditzen zaigu. Orain hurrengo atalean aurreratzen genuen **gebarataren Zumeltzegi dorrearen azpi-inguruetan** itxuratzen hasiko zirela, seguru asko, lehenengo kale oñatiarrak. Laster ikusiko dugu euren bilakaera historikoa.

San Migel parrokia, herriko historia erlijioso eta ekonomikoan ez ezik, **Oñatiko hirigintzan** ere ardatz eta erdigune oso **garrantzitsua** izan da antzina antzinatik. Eliza nagusi horren inguruan, batez ere, gauzatuko ziren **Erdi Aroan** lehenengo etxe-ilarak eta **kale-auzoak**: hau da, gaur egungo **Kale Zaharra**, **San Anton** eta **Aita Madina** kaleak. Dena den, hileroko lan-txo hauetan behin eta berriro agertuko zaigunez, **kale-izenak** oso aldakorrak izan dira historian zehar.

Kale Zaharraren urratsak Aurretik ere zerbaitzuk izango ziren, jakina, baina **Oñatiko hiri-egiturari** buruz ezagutzen ditugun albisterik zaharrenak **XV. mendeko** bigarren erdikoak dira. Ordurako **hiru auzo nagusi** moldatuta omen zeuden hemen: **Kale Zaharra** (*Rua Vieja*), **Kale Barria** (*Rua Nueva* [sic]) eta **Santa Marina**. **Kale Zaharra**, izenak berak adierazten digun bezala, antzinakoena zelako-edo,



Kale Zaharreko beheko aldea duela ehun bat urte.

jendetsuena ere bazen 1489an, 230 familia ingururekin; **Kale Barriak** 160 bat zituen; eta **Santa Marina** 100 eskas.

XV. gizaldiaren bukaeran Kale Zaharra Oraiturriraino (oraingo Olaiturri) iristen baldin bazen, **hurrengo mendeetan beherantz luzatuz joan zitzaigun**: lehenik egungo **Lizaur** arkitektoaren kaleko bidegurutzeraino heltzea lortuko zuen, **pitinka-pitinka Kurtzekoraino** ailegatu arte; hori bai, zenbat eta beherago orduan eta zabaltxoago. **Beheko parte** horretan, **Kanpantxo** ere tartean dela, **kale-baserri ugari** egon ziren 1960ko hamarkadara arte.

Edonola ere, zenbait gauza garbi utzi beharra dago hastapenetik: **gure oroitzapenen munduan** geratu zaizkigun **idea batzuk** berrikusi beharrean gaudela, alegia. Esate baterako, **Xabier** eta **biok Alzaa** kalean jaio eta bizi izan ginen urte askoan, nahiz eta gu **Kale Zaharrekoak** ginela esaten genuen beti. **Arrazoa** sinplea eta nahasia da aldi berean: **izen ofiziala bat izan daiteke eta herritarrek darabiltena beste bat**; hainbat izendapenek luzaroan iraun arren, beste batzuek bizitza oso laburra daukate; gainera, **erdi galduta** eta ahaztuta zeuden izen batzuk berreskuratu egin dira azkenaldian.

Kalearen izenak
Kale Zaharrari dagokionez ere, izen-kontu honek historia luze eta bihu-

rri samarra islatzen digu. Egia da **XV.ean** *Rua Vieja* moduan agiri dela paper zaharretan, baina **hurrengo gizaldian auzo-multzo bereziak azaltzen zaizkigu**, oraingo izendapenekin kontraesan antzekoak dauzkate-nak: **parrokiatik beherako lehenengo kaleek San Migel auzoa** osatzen zuten, hots, **Kale Zaharraren** lehen zatirekin batera, honen ezker-eskumetan dauden egungo **San Anton** kaleak eta **Aita Madinaren** lehen parteak. Beraz, uler gaitezen, **Txaketuena-Akerretik Onarainako hiru kale paraleloak**. **Gasiteek**, batez ere, ondo ezagutzen duten eremua.

Gezurra dirudi, baina hortik beherako bi etxe-multzok **San Anton auzoa** moldatzen zuten, **Illarramendi-Ona kantoitik Lizaur-Arrazola kantoirainoko tartean**. Kasu honetan egungo **Kale Zaharra** eta **Madina** kalen bigarren zati paraleloan. Zera argitu behar da: **San Anton ermita** inguru horretan kokatu zela ehunka urtetan, **haitzaren gainean**, 1862an eraitsi zuten arte. Hor daude oraindik iturri ederra duen izen bereko **plazatxotik ermitara igotzeko landu ziren harrizko eskailera bikainak**. Are bitxiagoa: **geroztik modutu zen hortik Kurtzekorainoko luzapen berriagoak Kalezarra** (*Callezarra*) izena bereganatu zuten orduko agirietan.

Honenbestez, **pentza dezakegu**, ikuspegi historikotik begiratuta, **Kale Zaharrak hiru auzo moduko izan zituela** **XIX. gizaldira** arte: **San Migel**, **San Anton** eta **Kalezarra**, hurrenez

Kale Zaharrak mende askotako garapena eta bilakaera izan du

Kale Zaharrean hiru auzo zeuden: San Migel, San Anton eta Kalezarra



Kale Zaharraren antzinako auzo-banaketa.

hurren; hori bai, batzuk beste batzuk baino zaharragoak, etxe-
ilaren eraikuntza-dataren arabera. **Egoera hau, ordea, zeharo
aldatu zen 1905ean, Zazpibideta/Sietevientosetik Kurtzetxo-
rainoko erdiko kale luze osoari ofizialki Juan Carlos Alzaa ize-
na ezarri zitzaionean, Santos Etxeberria alkatearen garaian. Eta
horrela jarraitu zuen, duela berrogei bat urte, Kale Zaharra
herri-izen klasikoa berreskuratu zuen arte.**

San Anton ermita

Goraxeago aipatu dugun ermita hau herrigune barruan zego-
en garrantzitsuena zen, Santa Marinakoarekin batera. Arrazoi
desberdinengatik, biak urte gutxiren aldearekin bota zituzten
1860ko hamarraldian. Oñatiko kale aldean aurkitzen den kare-
haitz trosko handi bakarraren gainean jasotako **San Anton
ermitak lotura inportantea eduki zuen herriaren historiare-
kin, eta zer esanik ez Kale Zahar alde honekin.**

San Anton ez zen ermita arrunta; zin-ermita ere baguenen.
Zin edo juramentu bereziak egiteko izendatzen ziren leku
horietako bat. **Hilabete batzuetan Oñatiko parroikia ere izan zen,
San Migel eliza nagusiaren barruan pertsona bat hil zutelako.**

Orduko eliza-legeek agintzen zuten, halakorik gertatzen zene-
an, tenplu hark urte betean itxita egon behar zuela. San Anto-
nek, hurren zegoen elizatxoa izanik, parroikia-lanak bete zituen
epe horretan.

Erdi Aroan eraikitako San Antonen ermita hau, gorabehera
askoren ondoren, XIX.ean desagertu zen, arestian adierazi
dugun legez. Arrazoia bitxi samarra da; bueno, gaur egun ere
pasatzen dira horrelakoak. Ba, begira, zergatiaren zuztarrak:
esan berri dugu ermita haitzaren gainean eraikita zegoela; **kare-
haitza izanik, material estimatua zen herriko hainbat obrata-
rako; besteak beste, 1859-1860an plaza berriko pelotalekua
egiteko, gaur egun ere hortxe dirauena.**

Pelotalekurako eta beste toki batzuetarako materialen ustia-
ketak arrisku larrian jarri zuten ermitaren egitura bera. Harro-
bi-lanek eragindako brintzadak, arrakalak, pitzadurak agertu ziren
hormetan. Auzotarrek kontra egon arren, azkenean eraitsi egin
zen herri barruko ermitarik klasikoena. **Santuaren irudia San
Miguel parrokiara eraman zen. San Anton izena, nolabait eta toki-
aldaketa batzuekin, geratu zaigu lekuko gisa.**

smk
san miguel kooperatiba
943 781 217
kale barria 8 - 20560 oñati
www.sanmiguel.coop

EGUR-LAN
AROSZTEGIA
LIMABAR S.A.L.
BEREZAO INDUSTRIALDEA 20560 OÑATI (GIPIJAZKOA)
TEL./ FAXA: 943 78 14 59 limabarsal@gmail.com
www.egur-lan.es

Kale Zaharra (II)

> Jerardo Elortza eta
Xabier Zelaia

Aurreko alean adierazi genuen legez, aspaldikoa dugu Kale Zaharra. Izenaren jabe da, benetan. Hainbeste gizalditan milaka bizilagun eta dozenaka denda, taberna, tailer nahiz lantegi eduki zituen; baina baita makinatxo bat kale-baserri ere. Biztanleen artean denetarik zegoen: kargudunak, elizgizonak, langileak, artisauak, dendariak edota nekazariak. Auzoan jaio edo bizi izan eta, aldez edo moldez, herriko historian nabarmendu ziren pertsona banaka batzuk gogoratuko dizkizuegu.

Pertsonaia aipagarri batzuk

- **Francisco Antonio Palacios Lezeta** frantziskotarra (1727-1804), idazle eta sermolari ospetsua, Euskal Herri osoan aritu zen misioak euskaraz nahiz erdaraz ematen. Bere sermoietariko asko Zarauzko frantziskotarren komentuan gordetzen dira eskuizkribuetan. Sermoigintzarako batetik eta bestetik deitzen ziotelako, Padre Caminos goitizena ezarri zion bere buruari.

- **Anselmo Gomendio Castillobeitia** (1760-1841), Espainiako itsas armadako ofiziala, gudu eta kanpaina askotan parte hartu zuen: Argel, Trafalgar, Mexicon eta abarretan. Trafalgar-eko itsas gudu ospetsuan atxilotu egin zuten eta Gibraltar eta Portsmouth-eko espetxetan eduki zuten. Gerora, Donostiako eta Pasaiaiko komandante ere izan zen.

- **Esteban Gomendio Castillobeitia** (1763-18..), aurrekoaren anaia eta hura bezala itsas armadako ofiziala Cadiz aldean; 1813an, Indagadora korbetaren komandante zela, Kolonbiako Cartagenara joan behar izan zuen, piraten menpe zegoen hiria libratzera, baina preso hartu zuten, urtebetera ihes egitea lortuz. Harrezkero Oñatin bizi izan zen.

- **Jose Francisco Alzaa Gomendio** (1794-1835), militar profesionala izan ez arren, hainbat gatazketan parte hartu zuen: Napoleonen aurkako gerran hasi eta I. karlistaldira arte; Oñatin boluntario errealdisten komandante genuen, eta gerraren hasieran Karlos V.aren alde altxatu zen; Zumalakarregiren adiskide mina, Otxandioko guduan hil zen, Ormaiztegiko jenerala baino lehentxoago.

- **Joaquin Julian Alzaa Gomendio** (1798-1848), aurrekoaren anaia gazteagoa; doktorea eta irakaslea Oñatiko unibertsitatean; karlisten gerran gogor aritu zen hainbat tokitan ofizial gisa, Oriamendin besteak beste. Bergarako besarkadaren ondoren, atzerri jo zuen; 1848an, gogoz kontra, karlisten beste altxamendu baten buru izatea tokatu zitzaion; atxilotu eta Zaldibian fusilatu zuten.

- **Blas Kortabarria Ramila** (1812-1855), urte hartako kolera-izurritean nahikoa gazterik hil bazen ere, ikasketak burutu ondoren, hainbat lanbide izan zituen. Gaztaroan Parisera joa-



Argazkia: Udal Artxiboa (Arzuaga funtsa).

Kale Zaharra duela 50 urte.

nik, Dionisio Aguado gitarra-jolearen ikasle izan omen zen. Oñatira itzulita, frantsesa irakatsi zuen institutuan, Elkarte Filarmonikoko zuzendaria izan zen eta udaleko idazkaria ere bai. Gitarrarako musika-lan batzuk idatzi zituen.

- **Juan Carlos Alzaa Larrañaga** (1821-1896), Jose Franciscoren semea. XIX. mendeko Oñatiko alkaterik ospetsuena; garai hartan alkateak urtebeterako aukeratzen ziren ia beti. J. C. Alzaa, ordea, bost urte jarraian egon zen postu horretan. Bere alkate-tza-denboran obra asko egin ziren herrian, ur-horniketeta berria eta iturri monumental dotoreak, besteren artean.

- **Damian Lizaure Lasa** arkitektoa (1885-1956), XX. mendearen lehen erdian makina bat etxe eraikitzeko edo eraberritzeko lanak zuzendu zituen jaioterrian eta beste leku batzuetan. Oñati guztian, kalean naiz auzoetan, ikus daitezke haren aztarnak; baita Kale Zaharrean ere. Istripu latzean hil zen Abadiñon bere bi alaba eta txoferrarekin batera, trenak taxia harrapatu zue-nean.

- **Felipe Jausoro Uriarte** (1898-1986), euskaltzale porrokatua, euskara irakaslea frankismo garaiko urte zailetan. Gerra aurretik, Uribarri auzoko eskolan, gure hizkuntzan irakatsi zuen lehenengotarikoa izan zen, eragozpen asko gaindituz. Gerratean iparraldera alde eginda, Gurs-eko esparruan egon zen hainbat hilabetez konfinaturik. Herriko kronikak bidali zituen euskaraz gerra aurreko nahiz osteko aldizkarietara.

- **Felisa Enparantza Galdos** (1911-1996), emakume saiatur Oñatiko kontu zaharrak jasotzen eta ezagutarazten. Artikuluak argitaratu zituen Oñatiko aldizkarietan, eta inguruko irratietan hemengo albisteak zabaldu. Beti euskaraz. Bere mertzeria-denda liburuak eta egunkariak ere saltzen zituen azken aldera.

- **Joxe Otorala Galdos** (1926-2005), herriko hainbat talde eta ekimenetan parte hartu zuen: parrokiako koruan, Irrintzi zortzikotean, ikastolaren sorreran, batzokian, edota artzain-txakurren txapelketen antolamenduan, besteak beste. Antonino Ibarrendoren hainbat abestiri euskarazko letrak jarri zizkion eta Oñatiko euskararen azterketarako ekarpen interesgarriak egin zituen.

- **Iñaki Zumalde Romero** idazleak (1926-2011) lan ugari eta garrantzitsuak utzi zizkigun. Liburu eta aldizkari askotan argitaratu zituen bere ikerlanak eta artikuluak. Oñati eta Euskal Herriari buruzko gaiak jorratu zituen, batez ere. Oinarrizko erreferentzia izaten jarraitzen du gure herriko historia aztertzerako orduan. Literaturaren inguruko kritika interesgarriak ere idatzi zituen.

Era askotako dendariak

Ezinezkoa zaigu hemen guztien aipamena egitea eta, horregatik, azken ehun eta piku urteetan egondako batzuk soilki izendatuko ditugu. Egungo Kale Zaharrekoak ez ezik, alboetako kaltetakoak ere sartu dira. Badakigu hutsuneak eta akatsak aurkituko dituzuela, baina lan sakonago baten aurrerapena izan dadila.

Dendak

Janariak:

- **Denetik:** Aitzekua; Sabasena; Mantxola (supermerkatu txikia); San Migel kooperatiba (1925an sortua, goikoa baino garrantzitsuagoa hasieran); Teresa Zubia; Rakel Urrutxi; eta Antoni larza.
- **Okindegiak:** Illaramendi; Egañena (Kale Barriko okindegiaren saltokia); Gorrotxategi,(Ogi Berri orain).
- **Harategiak:** Txaketuena; Patrirena; Juan Mari Garai.
- **Arrandegiak:** Narzisa Igartua; Karmen Gutierrez eta alabak; Kresala. Auzokoak, baina saltokia plazan zutenak: Gregori eta Prexen Madinabeitia; Lukas eta Axun Igartua.
- **Fruta-saltzaileak:** Modesto Elgero; Illaramendi; Ama Lur; eta Oñati fruta-denda.

- **Kafe-denda:** Biain anai-arrebak (Iraban).

Bazarra: Lasarena, XIX. mendetik aurrera; denda berean Arrazolatarrak aritu ziren gerra aurretik; Rosita Arregi eta Leonardo Urrutia gerra ostean.

Zapata-saltzaileak: Klarita Biain eta bere alaba Maria Angeles Lizarralde; eta Olaldetarrak (Sillero), kale honetako bi leku desberdinetan.

Erloju-dendak: Dionisio Mugartza; eta Iñazio Illaramendi.

Argazkilariak: Dionisio Mugartza-Patxi Elortza.

Drogeriak: Tavira (Untzilla); eta Urrutia.

Aldizkariak eta liburuak: Haritza.

Opari-dendak: Juan Arregi, Arrillagarena; eta Rosa Igartua, Sua.

Bitxitegiak: Mugartza; eta Sua.

Gozokiak: Mizke.

Altzariak: Idigoras (Aranburutarrak).

Joskinak: askoren artean bi jostun klasiko nabarmenduko ditugu: Petra Igarzabal (Zubillagako Arotzenako alaba); eta Mikela Mujika (Mikelaerrero).

Sastreak: Juan Igartua; eta Higinio Iriarte, txistulari eta sastre.

Mertzeriak: Paula Guridi; Felisa Enparantza; eta Mikelaerreron eta ondorengoak.

Tintoreria: Margola.

Etxetresna elektrikoak: Benito Aiausti; Bizente Ormazabal; eta Leir (Lete-Irizar).

Industria-tresnak: Femur.

Leku faltaz, ez dugu sartzerik izan zenbaki honetan Kale Zaharreko beste hainbat merkatari, artisau eta lantegi. Datorren hilean jarraituko dugu.



Kale Zaharra (III)

> Jerardo Elortza eta Xabier Zelaia

Aurreko hileko denden artean aipatu gabe geratu ziren, besteak beste, Kale Zaharreko bi ontzi-denda, zerami-ka saltzen zutenak: Esteban eta Patxi Iñurritegi (*Largo*) anaiena; eta Teresa Zubiak janari-dendaren ondoan eduki zuena; biak inguru batean egon ziren, baina garai desberdinetan. Liburu-denda bat ere ahaztu zitzaigun: Madina kaleko Aketz; Anton Apaolaza eta Patxi Irizar arduratu ziren hartaz. Gainera, Xarmenta lentzeria eta Miren Barrena erropa-denda.

ARTISAUAK ETA BESTE

Zapatariak (oinetako-konpontzaileak): Bitoriano Kortabarria, Bonbardo, familiarekin; Agapito Kortabarria eta semea; Luis Lete eta beste.

Uztargina: Pedro Lizarralde.

Perratzailea: Zipriano Zufiria.

Errementariak: Eujenio Arregi (*Matxakito*); Bixente Santa Kruz eta semeak.

Iturginak: Nikomedes Iturrospe eta ondorengoak; Faustino Erostarbe eta semeak; Enrike Apaolaza; Juanito Arkauz; Joxe Antonio Maiztegi; eta Iñurritegi.

Arotzak: Leandro Ortiz de Zarate; Pedro Beitia (*Kastillo*) eta semeak; eta Bittorin Zelaia, Bixente Ugarterekin.

Banastaginak: Larrastegi; Txaiña; Frantzesiena; Jausorotarrak (*Nabarro*); Paiko; Erle; Txori; Klemente; Lukas Agirre; Martin Aranburu (*Petokin*); Lazkanotarrak, eta abar.

Ile-apaintzaileak:

• **Gizakumeenak:** Lorenzo Ugarte (*Irubietta*); aurrekoaren loka-lean Doroteo, Nikolas eta Igone Ugarte; Patxi Iñurritegi (*Largo*); Aurelio Igartua; eta Julian Olalde (*Sillero*).

• **Emakumeenak:** Maritxu eta Martina Ugarte ahizpak (*Olalde*); eta Alaitz Zuazubiskar (*Izar*).

Taxistak: Rufino Lizarralde; Liborio Lizarralde; Pako Rabanete, Maria Jesus Aberasturi eta hauen semea.

Botika: Kale Zaharraren hasieran antzinatik kokatutako farmazia. Azkeneko botikariak honako hauek izan dira: Pablo Zatarain; Andres Leturia; Jabier Barrenetxea; Ana Barrenetxea; eta Amaia Igartua.

Belar-dendak: Aurora Iñarra (*Goiztiri*); eta Amalur.



Hernani eta Astorkitza etxeak elkarren ondoan

LANTEGIAK ETA ENPRESAK

Txokolate-fabrikak: Gereka (*Bazterrikarena*); eta Onena (*Arri-llagarena*).

Aterkin-lantegiak: Zelaia, Enparantza eta Ezpeleta; Agustin Baltzategi; eta Kurtzekoa.

Pila-fabrika: Zelaia, Enparantza eta Galdos enpresaren hasierak, aurretik guardasol-lantegia zuten lokal berean.

Gasolindegia: *Perratzailliena* tabernaren (Ona) aurrean zegoen, Zipriano Zufiriak 1920ko hamarkadan jarrita; gerra ostean Migel Illarramendiri esleitu zitzaion bere ustiaketa.

Auto-konponketak: Azkune anaiak; eta Erle.

Bizikleta-tailerrak: Benito Aiastui; Roman Igartua; eta Luxio Errasti.

Motorrak: Yarza.

Karretilak: Madinazkoitia-Sansinenea.

Bakelita-lantegia: Romulo Azkue.

Torloju-lantegia: Perosterena eta Irizar, Kanpantxon.

Ulma-taillerra: urte batzuk Kurtzeko etxe azpian egin zituen.

Eraikuntza: Egaralur.

TABERNAK, KAFETEGIAK ETA PASTELERIAK

Klasikoagoak: Bujero; Txaketua; Pako; Luixena; Perratzailliena (Ona) Inesena (Aloña); Idaho (ondoren Ongi Etorri); Kastillona; Donosti; Elizaurre.

Orainagokoak: Iturri; Izarraitz; Aker; Xaguzar; Ongi; Harripe; eta Gorrotxategi (Ogi Berri).

Pasteleriak: Anakabetarrena aspaldi; eta Gorrotxategi (Ogi Berri).

HOTELAK ETA OSTATUAK

Fonda Comercio, gerora Hostal Izarra (Bujeron); Hotel Ona; Fonda San Miguel; eta Ongi Hotela.

ELKARTEAK

Txantxiku Txoko (herriko zaharrena, lehenengo Txaketua tabernaren gainean, eta gero Ona hotela egondako lekuan); Kale Zaharra (San Migel kooperatiba gainean lehenengo, eta ate bat aurrerago orain); Oinarri (Onena txokolate-fabrikaren lokalatan); Haitzalde (San Anton kalean); eta Añolea Elkartetxea (Kale Zahar barrenean).

IKASTETXEAK

Agustino laterandarren kolegio-seminarioa hamarkada askotan; ospitaleko nesken eskola (*La Milagrosa*), mutikoentzako eskolaurrea ere bazuena; herri-eskolako ikasgela batzuk 1928tik 1936ra, orain Idigoras altzari-denda dagoen lekuan; *San Migel* ikastola (kooperatiba gaineko pisuan hasieran; Lizaurre kaleko etxepean ere bai; eta agustinoen kolegioko hirugarren pisuan geroago); bigarren mailako institutuaren eraikin berria (gero *Zuazola* izena jarriko zitzaiona) zabaldu zen 1970an, ordura arte ospitale egon zen orubean; eta orainago *Ikas3* akademia urte batzuetan.

BANKUAK

Jatorrizko izenekin: Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa; Banco de Vizcaya eta ondorengoak; Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián; eta Caja Laboral Popular.

ZENBAIT ETXE ETA ERAIKIN INTERESGARRI

Kale Zahar eta alboetako herri-zati zabal eta luze honetan maki-na bat etxe eta eraikin jaso, eraitsi edota ordezkatu dira mende askotan zehar. Geratu zaizkigun horietako batzuk bakarrik nabarmenduko ditugu hemen. Egia esan, horiek ere aldaketa ugari izan dituzte, barrutik batik bat, baina antzinako egitura eta elementu aipagarriak mantendu dituzte kanpoko aldetik batez ere.

Inguruan diren, eta neurri batean, beheko auzo honen historia eta bilakaera sakon markatu duten bi eraikin-erakunde ez ditugu zerrenda honetan sartuko: San Migel parroquia eta Sancti Spiritus unibertsitatea, alegia, aparteko atal berezia merezi baitute. Hain zuzen ere, parroquia aurrean aurkitzen diren bi etxe aipatuko ditugu lehendabizi: Hernani eta Astorkitza izenekoak.

Hernani

Familia ezagun bateko egoitza izan zen XVI.eko eraikin honek

bi kaletara ditu fatxadak, geroztik zabalduetako balkoi eta leiho handiek. Bereizgarriak aipagarriena, agian, zera da: zilindro eran moldatutako espaloitik teilaturainoko ertz dotorea. Aurrealdean ezkerretara Ama Birjinaren behe erliebe margotu bat dauka. Unibertsitateko obrak amaitu gabe zeudelako, etxe honetan eman ziren lehen eskolak epe laburrean.

Astorkitza

Aurrekoari itsatsita dago. Leinu honetako kide batzuk XVIII.ean nabarmendu baziren ere, etxea askoz lehenagokoa dela dirudi, Erdi Aroko arrasto batzuk gordetzen baitira bertan. Parrokia aldera ematen duen fatxadan bi leiho gotiko txiki eta estilo bereko ate bat mantendu ditu; barruko aldean, orain banketxe bateko bulegoetan, tankera berdineko beste ate bat ikus daiteke.

Zaratekoa

Orain San Anton, Maiatzaren 1a eta Bakardadeko Amaren kaleen artean kokatzen den etxetzar hau abizenez aldatuz joan zen jauntxo-familia baten egoitza izan zen luzaroan, hau da, Bergantzo, Zarate, Moiuatarrena. Erdi Aroko hiru leiho gotiko gorde ditu eta San Antonena izan daitekeen behe erliebe bat, auzoan desagertutako ermitakoa beharbada. Azken ehun urtetan monasterioa, hainbat etxebizitza, ikastetxeak, dendak, aurrezki kutxa eta taberna bat, besteak beste, egon dira Zaratekoan.

Egañena

Zaratekoaren aurrean aurkitzen da Gaiñena bezala ezagunago den etxe hau San Anton kalearen hasieran, orain sarrera plaza txo aldetik baldin badauka ere. Bi ate gotiko mantentzen ditu, tamaina desberdinekoak. Handienak armari bat du giltzarrian gaztelu baten irudiarekin; txikiak, aldiz, gurutzea borobil baten barruan sartuta. Antzinako leiho txiki bat ere badauka fatxada horretan. Etxe hau zeharo birmoldatu zen 1960ko hamarkadan, pisu bat gehitu zitzaolarik.

Olakua

Makina bat izen eduki ditu eraikin honek: Olakua, Gomendio-rena, Mantarrain, Perratzailliena eta orain Ona, horrela deitzen delako behekaldean duen taberna. Orain kanpotik duen itxura XVIII.eko dela ematen du; hurrengo etxea ere, seguraski, eraikin horren zatia izango zen sasoi batean, aurretik nahiz atzetik biek balkoi eta leiho berdintsuak dituzte-eta. Arku goratuko ate batzuk geratu zaizkio, ostekaldeko handia berri samarra da baina.

Badira, noski, kale-arte honetan beste hainbat etxe eta gauza aipagarri: agustinoetako komentua eta eliza, hiru iturri monumental, armariak eta beste elementu interesgarri asko, hemen leku faltaz zehaztu ezin ditugunak.



Kale Zaharra (IV)

Alboko kaleak eta beste

> Jerardo Elortza eta Xabier Zelaia

Saiatu gara aurreko hiletako artikuluetan Kale Zahar klasikoaren inguruan egituratutako auzune, albo-kale eta kantoiei buruzko argibide batzuk ematen. Mende askotako historia eta garapena egon da tartean eta ez da erraza orrialde gutxitan bilakaera osoa argi eta garbi azaltzea. Gaurkoan kaleen izenei buruzko eta albo-kale batzuen gaineko xehetasunak eskainiko dizkizuegu.

KALE-IZENDEGIA

Aldez aurretik honako hau adierazi beharrean gaude: kale, plaza eta enparauei santu, errege, politiko, idazle eta pertsona ospetsuen izenak ipintzea ez da gure artean, oro har, ohitura hain zaharra izan; gehienetan, XIX. mendearen amaierako eta XX.aren hasierako kontuak dira horiek.

- **Rua Vieja** (Kale Zaharra) izenarekin ez ezik, luzaroan auzo-ka ere ezagutu izan da behealdeko eremu hori: **San Migel** (goiko partea) **San Anton** (erdikoa) eta **Callezarra** (behekoa) deitu dira horko kale-zati batzuk, orain hurrengo batean esaten genuenez.

- Aldaketa garrantzitsuak 1905ean etorri ziren: erdiko kaleari **Juan Carlos Alzaa** izena ezarri zitzaion; eskuinekoari **San Anton**; eta ezkerrekoari **Calle del Colegio / Ikasola kalea** (sic); horrelaxe dator eskola hitzaren euskarazko ordaina Manuel Larramendiren hiztegian.

- Zarateko etxearen aurrealdea **Berdura-plazatxo** moduan ezagutzen zen XX.aren hasieran, baina 1913an **Ramon Maria Lili** politikoa izen-deituraz bataiatu zuten; trantsizio-garaian orain daukan izena hartu zuen: **Maiatzaren 1a plaza**. Zaratekotik goranzko aldapa, berriz, ez da aspalditxoan San Anton kalea, **Zumeltzegi Torrea** kalea baino.

- Zazpibidetatik unibertsitate eta lehengo tren-geltokiraino doan kalea **Avenida de los Mártires de la Tradición** izendatu zuten 1939an gerrako irabazleek; gerora **Avenida de la Universidad Vasca / Unibertsitate Etorbidea** bihurtu da.

- **Ikasola kalea / Calle del Colegio Aita Madina** kalea dugu ia azken berrogei urtetan. Eta honen erdi ingurutik, institutu eta unibertsitate ostetik, errekaraino doan zatiari **Pio Mortara** kalea deritzo orain.



San Anton kalea 1950 aldera. Gaiñena, Lobera, Txaiñena, eta Larrastegikua etxeak.

- **Damian Lizaaur** arkitektoak ere, XX. gizaldiaren lehen erdialdean Oñatiko etxegintza eta hirigintzan hainbeste ekarpen garrantzitsu egin ondoren, etorbide baten izena bereganatu zuen 1960ko hamarraldian, Kale Zaharretik tren-geltokira (postetxera) doan kale zabala, alegia.

- Aurrekoaren inguruan dago **Olaiturri** ere. Ez da kalea, ezta plaza ere. Erdi Aroko eta askoz geroagoko izkribuetan ere **Oraiturri** legez azaltzen zaigu. Etimologia interesgarria dago hitz horren azpian. Azkenaldi honetan Olaiturriren eremua zabaldu egun dela esan daiteke.

- Kale Zaharreko behealdean **Kanpantxo** (*Kanpontxo* sasoi batean) izen tradizionala gaur egun ofiziala da.

- **Ibarrako zubiak** ere badu bere izendapena. Kontuan izatekoa: orain ez dugu oñatieraz *ibarra* berba erabiltzen, baina due-la gutxira arte ezaguna zen hemen, nonbait.

IZENEN ZERGATIA

Gu **geu**, kale, plaza eta auzo berriei izena jartzeko politika erabakitzerakoan, **ez gara** gertakari, santu, apezpiku, jeneral, alkate, politiko, idazle, kirolari edo bestelako **pertsonaia batena erabiltzearen aldekoak**. Salbuespenak salbuespen. Askoz **jatorragoa** eta naturalagoa **dela uste dugu** aspaldidanik **jendeak eman dion izendapenari eustea**, herri-toponimoari, alegia. Oñatin, beste leku askotan bezala, denetik daukagu: toki-izen batzuk dantzan ibili dira, egoera eta gorabehera politikoen arabera. Beste kasu batzuetan izendapen herrikoia mantendu edo berreskuratu egin da. Bada hor aztertze gaia.

Orain dagokigunari helduz, goraxeago azaldu zaizkigun izen batzuen azalpen labur batzuk ematen saiatuko gatzaizkizue. **Juan Carlos Alzaa Larrañaga** (1821-1896) alkateari eta **Damian**

Lizaur Lasa (1885-1956) arkitektoari buruz zerbait esan genizuen aurreko artikuluetan. Edonola ere, azpimarratu nahi genituzke J. C. Alzaaren alkate-denboran eta bere ekimenez Oñatin jarri ziren **iturri monumental ederrak** (1880-1882). Horien artean, Kale Zahar eta inguruetakoa: bata, hasieran Zazpibidea eta ondoan eta orain Zarateko etxearen aurrean, **emakume urketari liraina** irudikatzen duena; bigarrena, San Anton plazatxoan ikus dezakegun iturri ederra (**bi fauno arrainari eusten**), inguruari nortasun berezia ematen diona; eta azkena, *Kanpantxoko iturririx*a, hain monumentala izan barik, Kale Zaharreko ertz horretan ikur dena.

Damian Lizaurrek herri guztian dozenaka arkitektura-lan zuzendu eta bideratu zituen. Kale Zahar eta inguruetan ere obra ugari bere ardurapean burutu ziren: **unibertsitatearen berrikuntza sakona, abadetxea, agustinoetako kanpandorre berria, orain Idigoras altzari-denda dagoen eraikina, Uriarte-Zuluataneko etxearen aurrealdea, San Migel kooperatiba zena eta abar.**

Adierazi berri dugu kale-izen batzuk aldatu egin direla historian zehar. Badira pare bat Oñatiko agustino laterandarrek zerikusituzena dutenak. Pio Mortara eta Aita Madina kaleak, hain zuzen ere. Bata nahiz bestea, agustinoen komentu eta elizaren inguruan aurkitzen dira:

- **Frantzisko Madina Igartzabal (1907-1972)** oñatiarra, Zubillagako Txipitxaille baserriko semea, musikari ospetsua izan zen Euskal Herrian, Argentinan eta Estatu Batuetan; gizon ikaslea, idazle fina, euskaltzale sutsua, askotariko musika-lanak gauzatu zituen: poemak, rapsodiak, mezak, erlijio-kantak, gitarrak, harpa edo organorako piezak, zortzikoteentzako euskal abestiak; harreman oso estua izan zuen Oñatiko *Irrintzi* izeneko otxotearrekin; **kultura-ondare oparoa eta aberatsa utzi zigun laterandar honek.**



Oraingo A. Madina kalea 1960ko hamarkadan. Ospitalea bota eta institutu berria jaso aurretik..

- **Pio Mortara Levi (1851-1940)**, Bolonian jaio zen Edgardo izenaz eta Liejan hil. **Gure herrira 1884an heldu ziren lau kanonigo laterandarretako bat; lan asko egin zuen batera eta bestera diru bila mugituz, hemengo agustinoen komentu-ikasitexea eta eliza eraiki ahal izateko; denbora laburrean euskaraz ikasi eta sermoiak gure hizkuntzan egitea eta poemak moldatzea lortu zuen.** Hona etorri aurretik ere oso famatua zen, bere haurtzaroko historia korapilatsuak bazterrak astindu baitzituen: familia judutar batean sortu zen, baina umezainak isilean bataiatu zuen; hori dela, bahitu egin zuten Pio IX. aita santu gatazkatsua garaian, eta Vatikanon hazi eta apaiz laterandar egin zen, izena eta izana aldatuz. **Laster, beharbada, are ospetsuago bihurtuko da, Steven Spielberg zinemagile ezagunaren hurrengo filmak Mortararen historia kontatuko baitu, dirudienez.**


TABERNA • JATEKETA
 Bidebarrieta 6
 Tel.: 943 71 62 96
 20560 OÑATI

FAGOR
 INDUSTRIA TALDE KOOPERATIBOA

